



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriak 23**

**Vitoria-Gasteiz, 23 de octubre de 2018**

## Lehendakaritza

### LEHENDAKARIAK BISITA INSTITUZIONALA EGINGO DU ARGENTINARA ETA TXILERA, ETA “EUSKAL ASTE NAZIONALEAN” PARTE HARTUKO DU

- Bidaia ofiziala urriaren 31etik azaroaren 6ra bitartean egingo da
- “Euskal Aste Nazionala” Argentinako Mar de Plata hirian egingo da

Iñigo Urkullu lehendakaria buru izango duen Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak Argentina eta Txile bisitatuko ditu urriaren 31etik azaroaren 6ra bitartean. Bidaia ofizial horretan, lehendakariak aukera izango du ***Euskadi Basque Country nazioartekotze-estrategia*** kanpoan proiektatzen jarraitzeko eta bi herrialde horiekin lotura instituzionalak, kulturalak eta ekonomikoak estutzeko. Lehendakariak, halaber, aurten Argentinako Mar de Plata hirian egingo den “**Euskal Aste Nazionala**” parte hartuko du. Lehendakariak XI. legegintzaldian atzerrira egiten duen **zazpigarren irteera** izango da.

Bidaia ofizialean, lehendakariarekin batera izango dira **Marian Elorza** Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, **Leyre Madariaga** Kanpo harremanetarako zuzendaria eta **Gorka Álvarez** Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria. Eusko Jaurlaritzak Argentinan eta Txilen dituen ordezkarien babesarekin ere izango du, **Sara Pagola** eta **Rafa Kutz** hurrenez hurren.

Jaurlaritzako ordezkariak aukera izango du bilera instituzionalak izateko baita bi herrialdeetan errotuta dauden euskal komunitateei.

Buenos Aires hirian, memoriaren kulturaren alorrean, lehendakariak ESMA (Armadaren Eskola Mekanikoa) Memoriaren Lekua Museoa bisitatuko du. Memoriaren eta giza eskubideen leku horren xedea da diktaduraren biktimak gogoratzea (1976-1983) eta gizartearen aurkako krimenak salatzea.

Azaroaren 2an, lehendakaria buru duen ordezkariak Mar de Plata hirira joango da, bertan egingo baita “Euskal Aste Nazionala”. Argentinako euskal kolektibitatea osatzen duten pertsona guztien urteko topaketa handia da. Herrialdeko Euskal Etxeak txandaka arduratzen dira topaketa hau antolatzeaz, eta aurten “Denak Bat” Euskal Etxearen txanda da, **75 urte betetzen dituen urtean**. Lehendakaria astearen inaugurazioan izango da eta bertan antolatuko diren hainbat jardueratan parte hartuko du.

Azkenik, ordezkariak Txilera bidaiatuko du. Bertan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak protagonismo berezia izango du agendan. Bidaiaren egun horietan, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendari nagusia batuko zaio ordezkariari, eta aurreikusi da lehendakariak akordio bat sinatzea Isabel Plá Emakumearen eta Genero Berdintasunaren ministroarekin. Emakundeko

zuzendari nagusiak, bestalde, akordioa sinatuko du Familien Fundazioarekin (fundazio hori herrialdeko presidentetzaren fundazio-sarearen parte da).

### **BASQUE COUNTRY PROIEKTATZEA**

Argentina eta Txile **lehentasuneko herrialdeztat jo dira** Euskadi Basque Country nazioartekotze-estrategian. Egoera ekonomiko larriaren gaineratik, Argentinan aspalditik oso handia izan da Euskadiren presentzia soziala, enpresariala eta kulturala. Izatez, **Euskal Etxe gehien duen munduko herrialdea** da, guztira 84. Txile eta Euskadiren arteko harremanak ere iraganean hasi ziren, eta herrialde horrek ere ondo kokatutako euskal diaspora du. **Euskal enpresa ugari dago Txilen**, eta Latinoamerikan interes handia pizten duen merkatuetako bat da.

Hau izango da lehendakariak legegintzaldi honetan atzerrira egiten duen zazpigarren irteera. Bisitaldi ofizial hauekin, Eusko Jaurlaritzak, lehendakaria buru dela, Basque Country estrategia kanpoan proiektatzen jarraitu nahi du, eta, horretarako, topaketa instituzionalak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak egingo ditu, eta beste herrialde batzuekin itunak sinatuko ditu.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK ETA ALDUNDIEK AURRERA EGIN DUTE DATUAK ONLINE TRUKATZEKO EKIMENEAN, HERRITARREN ETA BEREN ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANA SINPLIFIKATZEKO

- **Gobernu Kontseiluak** berritu egin du erakundeen artean onlineko harremanean aurrera egin ahal izateko hitzarmena, herritarrek egiten dituzten izapide eta kudeaketak errazteko
- **Hitzarmenak** trukaturako informazioaren benekotasuna, osotasuna, isilpekotasuna, eskuragarritasuna eta kontserbazioa bermatzen ditu.
- **2018ko** lehen sei hilekoan bakarrik, **administrazio publikoek** ia 6 milioi transmisio gurutzatu zituzten online; **elkarreragingarritasun** horrek, **aurten**, 65 milioi euro baino gehiagoko aurrezpena ekarriko du, **paperaren erabileran**

Gobernu Kontseiluak “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta foru-aldundien arteko lankidetzaz-hitzarmena, administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko zerbitzuak elkarri emateko*” eredu berria onetsi du. Dokumentu horren bidez, jauzi kualitatiboa ematen da erakundeen arteko lankidetzan, herritarren eta beren administrazio publikoen arteko harremana erraztu eta sinplifikatzeko.

Hitzarmen berri horren bidez, erakunde publiko guztiak plataformen sare batean sartzen dira; sare horretan, datuak eta informazioa online partekatzen dute, herritarrek administrazio batetik bestera ibili behar ez izateko, beste erakunde batean egon daitekeen paperezko dokumentazioa aurkezten. Horren bidez, paperezko egiaztagiri edo bestelako ziurtagirien ordez, datuen transmisio elektronikoa egiten da, eta, horretarako, **trukaturako informazioaren benekotasuna, osotasuna, isilpekotasuna, eskuragarritasuna eta kontserbazioa bermatzen dira.**

Horrela, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek oinarritzko aplikazioak partekatuko dituzte, besteak beste:

- ✓ **Euskal Sarea**, euskal administrazio publikoen jakinarazpenen sarea
- ✓ **IZENPE**, sinadura elektroniko aurreratuko zerbitzuak, euskal agentziaren identifikazio, benetakotasun eta sinadura elektronikoaren baliabideak
- ✓ **NISAE**, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragingarritasunerako nodoa (NISAE)
- ✓ **Ordainketa Pasabidea**; horren bidez, edozein izapide-mota segurtasunez eta erraz ordain daiteke.

## 65 MILIOI EUROKO AURREZPENA

Euskadi buru da administrazio publikoen arteko onlineko informazioaren trukean; horrela, baliabide publikoen aurrezpen handiak egin ditzake. 2018ko lehen seihilekorako, euskal erakundeek **onlineko 5.998.030 transmisio** egin zituzten, NISAE nodoaren bidez, 2017. urte osoan antzera. Administrazio publikoen arteko onlineko transmisioen kopurua gora doa, urterik urtera, eta, 2018. urte amaierarako, Eusko Jaurlaritzak paperaren erabileran **65 milioi euro** baino gehiago aurreztea aurreikusten du.

Urtea	Transmisio-kopurua
2012	668.958
2013	1.054.014
2014	1.206.325
2015	2.894.123
2016	3.382.627
2017	6.689.050
<b>2018ko urtarrilak 1 - uztailak 31</b>	<b>5.998.030</b>

Administrazio publikoek gehien trukutzen dituzten izapideak honako hauekin lotutako dokumentazioa eta informazioak dira, hurrenkera honen arabera:

- ✓ Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE)
- ✓ Proba libreak hizkuntza-eskola ofizialetan
- ✓ Bekak unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko
- ✓ Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko laguntzak
- ✓ Etxebizitzaren prestazio osagarria
- ✓ Aitortutako sinadura elektronikoaren egiaztagiria eskuratzea
- ✓ Ikasleak ikastetxe publikoetan eta itundutako ikastetxe pribatuetan onartzea
- ✓ Gizarte-larrialdietako laguntzak
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan onartu eta matrikula egitea
- ✓ Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak

## HERRITARRENTZAKO ONURAK

- ✓ **Herritarrentzako zerbitzuaren hobekuntza:** administrazioen arteko lankidetzaren bidez.
- ✓ **Informazioen trukea administrazioetako sistemen artean.** Herritarrek, dela batek beste batean aurkezteko emandako dokumentuak aurkezteko, dela administrazio desberdinetan eskabideak eta idatziak izapidetu behar dituztelako, erakundeen artean ibili behar ez izatea lortu nahi da.
- ✓ **Izapideen eta administrazio-prozeduren sinplifikazioa.** Administrazioekiko izapideetarako edo egiaztagiriak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa murrizten da.
- ✓ **Gardentasuna eta erraztasuna:** herritarrek ez dute zertan ezagutu administrazioek ematen dituzten zerbitzuen atzean dagoen barne-izapidetzea; orain arte, batzuetan, beharrezkoa zen, zenbait izapide egiteko orduan.

## ADMINISTRAZIOENTZAKO ONURAK

- ✓ **Eraginkortasunaren hobekuntza:** administrazio-jarduketaren eraginkortasuna areagotzen da, lankidetzaren eta elkarlanaren bidez.
- ✓ **Kostuen eta espazioen aurrezpena:** paperaren ordez dokumentu elektronikoak erabiltzean, murriztu egingo dira paperezko dokumentuek eragiten dituzten kostuak, bai eta horiek biltzeko behar den espazioa ere; gainera, ingurumena zaintzen laguntzen da.
- ✓ **Lan-kargaren murrizketa:** truke elektronikoa egonez gero, arindu egiten da datuen karga kudeaketa-sistema hartzaileetan.
- ✓ **Informazioaren kalitatearen hobekuntza:** kudeaketa-sistema hartzaileetan dagoen informazioaren kargan egon daitezkeen hutsak ezabatzen ditu, karga hori automatizatu ahalko da eta.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**EUSKO JAURLARITZAREN IRITZIZ, “POLIZIA ABUSUEN LEGEA”  
IZENKOAREN ERREFORMA POSITIBOA DA, BEREN BERME  
JURIDIKOAK ARGITU ETA SENDOTZEN DITUELAKO**

- **Gainera, argi uzten du ez duela ahal judizialaren eskumenik inbaditzen eta babestu egiten dituela lege hau aplikatzearen ondoriozko administrazio-espedienteetan tartean izan ahal diren hirugarren pertsonen ohorerako, osotasunerako edo datu pertsonalak babesteko eskubideak**

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, aldatzeko lege-proposamena*” legebiltzarrean izapidetzearen aldeko irizpidea eman du, Legebiltzarreko nazionalisten eta euskal sozialisten taldeek proposatuta.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, erreforma hori positiboa da; izan ere, bat dator Espainiako Gobernuarekin pasa den uztailean adostutako alde biko akordioarekin. Akordio horren bidez, Konstituzio Auzitegiaren aurreko errekurtoa kendu zen. Horrela, aldaketa horren bidez, zenbait sektoretan legeak eragindako “*prebentzio eta zalantzak argitu*”ko dira.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, Legebiltzarreko nazionalisten eta euskal sozialisten taldeen ekimenak legearen berme juridikoak eta konstituzionalak sendotuko ditu, argi uzten baitu ez duela ahal judizialaren eskumenik inbaditzen eta babestu egiten dituela lege hau aplikatzearen ondoriozko administrazio-espedienteetan tartean izan ahal diren hirugarren pertsonen ohorerako, osotasunerako edo datu pertsonalak babesteko eskubideak.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZA “JARDUNBIDE EGOKIEN ETA USTELKERIAREN AURKAKO BULEGOA” SORTZEAREN ALDE

- Hala ere, EH Bildu talde proposatzaileari ohartarazi dio dagoeneko ari dela Eusko Legebiltzarrean aurreikuspenak dituen “*Gardentasunari eta Herriarren Parte Hartzeari buruzko Lege Proposamena*” izapidetzen, bai eta erakunde berria ere, eta hori beren ekimenari gainjartzen zaiola

Gobernu Kontseiluak, gaur, EH Bildu Legebiltzarreko taldeak erregistratu duen “*Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoa sortzeko Lege Proposamena*” izapidetzearen aldeko irizpidea eman du.

Eusko Jaurlaritzak adierazi du ekimena ez dela berria, mota horretako bulegoak sortzeko panorama erkaturako joerarekin bat datorrela. Horrela, irizpideak “*pasarte eta enuntziatu antzekoekin*” EH Bilduk aurkeztutako testuaren oinarri diren beste autonomia-erkidego batzuetako eta Legebiltzarreko beste talde batzuen lege ugari zehazten ditu. Gainera, Eusko Jaurlaritzak gogorarazten du Eusko Legebiltzarrak uko egin diola, gehiengo zabalez, “*Gardentasunaren Euskal Agentzia*” sortzeari, zeinak, funtsean, Euskadira dagoeneko panorama erkatuan indarrean dagoen azpiegitura-eredu etikoa inportatu nahi baitzuen.

Bestalde, une hauetan, Eusko Legebiltzarrean, “*Gardentasunari eta Herriarren Parte Hartzeari buruzko Lege Proposamena*” izapidetzen ari da; iaz aurkeztu zuten Legebiltzarreko nazionalisten eta euskal sozialisten taldeek, eta proposamenak zenbait aurreikuspen jaso ditu eta horiek, zati batean, EH Bilduk aurkeztutakoei gainjartzen zaizkie, izan ere, halaber, gardentasunean eta osotasunean aurrera egiteko erakunde publikoa arautzen du.

### EBALUAZIORIK EZA

Modu berean, Eusko Jaurlaritzak ohartarazi du proposatzen den bulego-eredua orain arte ez dela “*objektibotasunez eta zorrotasunez*” ebaluatu ingurunean eta, beraz, ezin dela jakin “*baliozkoa edo eraginkorra*” den.

Gainera, ez dago Euskadin “*osotasuna sustatzeko, gardentasuna bultzatzeko eta ustelkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko*” dagoen erakunde-sare trinkoaren funtzionamenduaren ebaluaziorik. Hau da, fiskalizazioko, kontrol ekonomikoko eta aurrekontu-kontrolako bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Ararteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, erakundeetako langileak, kode etikoak eta jokabide-kodeak Erregistratzeko Zerbitzua, Informaziora Jotzeko Euskal Batzordea eta abar. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, beharrezkoa izango litzateke sare hori aurretik ebaluatu eta haren gainean hausnartzea, erakunde berriak sortu aurretik, bikoiztasunik egon ez dadin edo errepikatu ez dadin eta, ondorioz, sistemaren koherentzia eta eraginkortasuna kaltetu ez dadin.



## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### 1,7 MILIOI INGURU GAZTEENTZAKO BEKETARAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAN I+G+B JARDUERA BULTZATZEKO

- **Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoan jasotzen den moduan (GEPE), berrikuntzaren bitartez Elikaduraren Balio Katea lehiakorrago egiteko beste urrats bat da.**
- **2007an eman ziren lehenengo aldiz beka hauek, eta harrez gero 95 beka finantzatu dira guztira gazte ikertzaileentzat eta 124 gazte teknologoentzat**

2019an Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Programako gazteentzako hamabi beka (doktoretza aurrekoak) eta nekazaritza eta arrantzaren eta elikagaien euskal sektoreko ingurune zientifiko-teknologikoan eta enpresakoan Teknologoen Prestakuntzarako Programako hamar beka deitzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken bileran. 2023ra arte, 1.681.013 euroz zuzkituko dira beka. 2007an eman ziren lehenengo aldiz beka hauek, eta harrez gero 95 beka finantzatu dira ikerketaren arloan aritu diren gazteentzat eta 124 gai teknologikoan jardun duten gazteentzat.

Elikagaien industriako balio kate osoan etorkizuneko profesionalak prestatzen jarraitzeko eta I+G+B jarduera bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak garatzen ari den politikaren barruan sartzeko dira esandako beka, lehen sektore modernoagoa eta lehiakorragoa lortzeko jarduera estrategikotzat jotzen baita. Hala jasotzen du Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE), zeinak exekutibo autonomoaren politikaren ildo nagusietako bat izanik berrikuntzaren bitartez, ezagutza berriak txertatuz eta agente guztien lankidetzaz Elikaduraren Balio Katearen agente guztien lehiakortasuna oro har hobetzea bilatzen baitu, besteak beste.

Era berean, laguntzak estuki loturik daude Eusko Jaurlaritzak XI. Legegintzaldirako finkatutako Herrialdeko Helburuetako batzuekin, hala nola hauekin: langabezia %10etik behera jaitea eta gutxienez 20.000 gaztek lehen lan esperientzia eduki dezatela lortzea.

### **Espezializazio zientifikoa eta teknikoa**

Asmoa da zentro teknologikoetan eta ikerketa zentroetan nagusiki ikerketa jarduerak eta garapen teknologikoko jarduerak egiten arituko diren zientzialarien trebakuntza lortzea, sektorerako interes handienekotzat jotzen diren eta etorkizunari begira proiektzioa daukaten lehentasunezko lerroetan ikerketa taldeak sendotzeko dagoen premiari erantzuten saiatuta. Sektoreko enpresetako teknologoen trebakuntza ere bilatzen da, nagusiki garapen teknologikoko eta enpresa berrikuntzako arloetan.

Laguntzen onuradun diren pertsonak sektorean erreferenteak diren ikerketa zentroetan sartuko dira, hala nola NEIKERen, AZTIIn eta LEARTIKERen. Beketako batzuk, halaber, EHUKo zentro batzuetan garatuko dira.

### **Ezaugarriak**

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzen kasuan, kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta luzatzeko aukera egongo da, urtetik urtera. Hasierako kontratua eta luzapen guztiak batuta, iraupena ezingo da lau urte baino gehiagokoa izan. Prestatzen ari diren teknologoien trebakuntza programarako laguntzei dagokienez, Dekretuak aurreikusten du laguntzak urte baterako izan daitezkeela edo segidako bi urtetarako; halere, kasu honetan laguntza guztiak bi urterako ematen dira.

Laguntzen zenbatekoei dagokienez, prestatzen ari diren ikertzaileek (doktoretza aurreko bekak) 18.574 euro eskuratuko dituzte lehen eta bigarren urtean, 19.833 euro hirugarren urtean, eta 24.555 euro laugarrenean. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 2.000 eurokoa baino handiagoa izango urteko, eta doktoretza kurtsoetan matrikulazio gastuak ordaintzeko, kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko, beste ikerketa zentro bazuetan egonaldi laburrak egiteko edo beste kurtso batzuk egiteko erabiliko da, esaterako.

Teknologoen prestakuntzarako laguntzei dagokienez, urtero 13.000 €-z hornituko dira, gehi Gizarte Segurantzako kuotak. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 1.000 €-koa baino handiagoa izango urteko, eta kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindua EHAA n argitaratzen den egunean kontatzen hasita. Eskaerak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Elikagaien Kalitateko eta Industrietako zuzendari helaraziko zaizkio. Eskaera inprimakia [http://www.euskadi.eus/ayudas\\_appa/](http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/) webgune helbidetik deskargatu ondoren, paperean bete ahal izango da eta izenpetuta eta zigilatuta bidali.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK 8 MILIOI EUROAN HANDITU DITU ENPLEGU-ZENTRO BEREZIETAN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN LANERATZEA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

**Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari Lanbideko Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman dio; horren bidez, erakundeak **8 milioitik gora handitu du** enplegu-zentro berezietan **desgaitasuna duten pertsonak laneratzea sustatzen duten laguntza eta diru-laguntzetarako aurrekontua.**

Zehazki, 8.292.000 euroko gorakada proposatzen da; beraz, **2018ko ekitaldirako deialdian, guztira, 41.992.000 euro daude**, izan ere, hasieran aurreikusitako partida 33,7 milioi eurokoa zen.

Gorakada hori esleipen-aginduak aurreikusten du, eta, horren bidez, Gobernuak eta Lanbidek enplegu-zentro berezietan **desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusteko** laguntza ematen jarraitu ahalko da; izan ere, laguntza horien bidez desgaitasuna duten pertsonak betetzen dituzten lanpostuetako soldata-kostuak bakarrik finantzatzen dira.

2017ko deialdian, hilean diruz lagundutako batez besteko lanpostuen kopurua **9.374** izan zen, eta emandako diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, 38.942.529,97 euro.

Enplegu-zentro berezien bidezko **lan babestuko** formula berezia funtsezko bilakatu da, Euskadin desgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko; izan ere, bide ematen dute okupazioa ematen dieten desgaitasunen bat duten pertsonak gizarte- eta lan-ohiturak hartzeko, aukera ematen dute ekoizpen-sisteman sartzeko eta beren enplegarritasuna hobetzen dute. Horrela, bada, ezinbestekoak dira pertsonak lan-merkatuan sartzeko.

Enplegu-zentro berezien helburu nagusia ekoizpen-lana egitea da eta, horretarako, merkatuko eragiketetan erregularitasunez parte hartzea eta lan ordaindua eta desgaitasunen bat duten bertako langileek dituzten **behar pertsonal eta sozialetara egokitzen diren zerbitzuen prestazioa** ziurtatzea. Eskabideak aurkezteko epea urte osoan dago zabalik.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### EUSKO JAURLARITZAK 5,5 MILIOI EURO GEHIAGO BIDERATUKO DITU 2018AN SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO

**Beatriz Artolazabal** Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, **seme-alabak kargura dituzten familientzako laguntza ekonomikoetara bideratutako partida aurten 5.514.200,00 milioi euroan areagotzea onetsi du.**

Martxoaren hasieran, Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, ordurako, 29.007.850 euroko partida, laguntza horiek finantzatzeko, aurreko urtean baino 1,5 milioi gehiago. Orain, partida hori handitu egin da, eta 34.571.814,00 euro ditu; beraz, oraingoan ere agerian geratu da Gobernuak euskal familia **babestu eta horiei laguntzeko** egiten duen apustua.

Kreditua handitu egin da, ekainean 2018-2022rako Euskal Autonomia Erkidegoko **familiei laguntzeko Erakundeen arteko IV. Plana** onetsi ondoren.

‘Familiei laguntzea’ 3. ardatzak, “seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzeko eta haur-pobrezia prebenitzeko”, 36. jarduketa jaso du, “**kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko aldi behingo prestazio ekonomikoen mailakako hobekuntza**”. Horretarako, martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua (Seme-alabak kargura dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoari buruzkoa) aldatu behar da, honako hauetarako:

- **Bigarren semeagatiko edo alabarengatiko** laguntzak hirugarren urteroko batera zabaltzeko.
- Alaba edo seme kontzeptua zabaltzeko eta **familia-etxebizitzan bizi diren** eta ekonomikoki gurasoen mende dauden 18 eta 25 urtetik beherakoen artekoak ere sartzeko.
- Adopzio- eta tutoretza-kasuan hasierako eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasteko **eguna** aldatzeko.
- Adopzioaren, adopzio-elkarbizitzarako babesaren ordezkartzaren edo tutoretzaren urterokoa jaiotzaren urterokoaren baliokidetzat hartzeko, bai eta mantenurako dagozkion urteroko guztiak ere, adin-**muga** bakarra 18 urte direla.

Uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuak (Seme-alabak kargura dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoen Dekretua **aldatu** duena), pasa den abuztuaren 1ean indarrean sartu zenak, dagoeneko sartzan ditu diru-laguntzen programan Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko IV. Planeko 36. jarduketan jaso diren lau neurri. Hori dela eta, 2018an hura gauzatzeko, 5,5 milioi euroko **gastu gehigarria** beharko dela kalkulatu da.

Programak **hiru jarduketa-ildo** ditu: kargura dagoen seme-alaba bakoitzeko laguntza ekonomikoak, erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntza ekonomikoak eta nazioarteko adopzioagatiko laguntza ekonomikoak.

Kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko laguntzak 400, 500 edo 900 euro dira, familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera. Zenbateko horiek bikoiztu egingo dira, baldin eta laguntzaren helburu den semeak edo alabak % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortuta badu. Laguntzaren helburu den semeak edo alabak familia-unitatean duen lekuaren arabera izango da laguntza.

## Ogasun eta Ekonomia

### 2019KO EUSKADIKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA 11.784 MILIOI EUROKOA DA

Gobernu Kontseiluak 2019ko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Proiektua onetsi du gaur. Aurrekontua 11.784,1M/€-koa da. Aurrekontu hori, egonkortasun esanguratsua duen hazkundearen aldeko testuinguru ekonomikoan planteatzen da, moteltze leunaren barruan egon arren. Hazkunde absolutua 297,7 milioikoa da, hau da, 2018an baino %2,6 gehiago. Hala ere, zorraren amortizazioa eta Euskal “Y”-aren eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen eragina kontuan izan barik, aurrekontuaren benetako hazkundera, aurrekontuen azterketaren ondoretarako, 371,3 milioikoa da, hau da, aurreko urtean baino %3,6 gehiago.

Ostiralean, urriaren 26an, erregistratuko da Eusko Legebiltzarrean.

#### **1.- Aurrerapen indartsua eta eutsia erakusten duen ingurua Euskadin**

Nazioarteko erakundeek egonkortasuna aurreikusten dute **mundu mailako hazkunde ekonomikoan** 2018an, nolabaiteko moteltzerako joerarekin 2019rako. Aurreikuspenek %3,3an jartzen dute munduko ekonomiaren hazkundera 2018rako, eta %3,1ean 2019rako. Funtsezko alderdia hesi komertzialen gauzatzea da, elementu horrek mundu mailako merkataritza zaildu eta zalantza handituko baitu, eta horrek eragin negatiboa ekarriko du inbertsioan.

**Ekonomia aurreratuei** dagokienez, Estatu Batuen hazkundera %2,9koa izango da 2018an, eta 2019an pixka bat motelduko da, %2,6ra helduz. Ziklo anitzeko hedapen fiskalak eta aldeko finantza baldintzek Estatu Batuetako ekonomia bultzatuko dute. Japonian, hazkunde ekonomikoa %1,0 ingurukoa izango da 2018-2019 epemugan.

**Asian indarra hartzen ari diren ekonomiek**, beste lurralde batzuetakoek baino hazkunde erritmo altuagoekin jarraituko dute. Hala ere, Txinako jardueraren moderazioa nabarmetzen da adierazle ekonomikoetan. Horrez gain, merkataritza arloko gatazken ondorioz moteltze hori nabarmendu egingo dela aurreikusten da. Zalantzak, posizionamendu protekzionisten indartzearen hedapenean daude.

**Eurogunean**, ekonomiaren hazkundera %2,1 eta %1,8 artean egongo da 2018an eta 2019an, hurrenez hurren. Tasa horiek beherako berrikuspena erakusten dute, Alemaniarako, Frantziarako eta Italiarako aurreikusitako hazkundera txarrerako joera erregistratu baita. Europako Banku Zentralak aurreikusten duenez, interes tasek egungo mailatan jarraituko dute 2019ko udara arte, gutxienez.

Ikuspegi horiek aldeko finantza baldintzetan eta nahiko euro egonkorrean oinarritzen dira. Dena den, ez daude arriskutik salbu. Batzuk orokorrak dira, merkataritza aldeko gatazkak eta petrolioaren prezioaren igoera, besteak beste, baina beste batzuek arlo ekonomikoari dagozkie, Brexitari buruzko negoziazioak, moneta politika aldaketa eta euroguneko herrialde batzuk jasaten ari diren gatazka politikoak, besteak beste.

**Espainiako ekonomiaren** hazkunde aurreikuspena %2,7koa da 2018rako eta %2,3koa 2019rako. Dinamismo ekonomikoaren oinarria etxe barruko eskaria izango da, eta familien kontsumoak jarraituko du, oraindik ere, BPGaren hazkundearen motor nagusia izaten. Dena den, moteltzerako joera, kontuan hartutako prebisio mugaegunaren inguruan dago. Enplegua sortzeko erritmoan emango den moteltzea, interes tasen hazkundera eta prezioen igoera, eskariaren agregatuaren moderazioa eragingo duten faktoreak izango dira.

2019ko aurrekontuak aurrerapen indartsua eta eutsia erakusten duen testuinguruan egongo dira **Euskadin**, moteltze soslaiaren barruan. Horrela, BPGaren prebisioek, tasak %2,8an jartzen dituzte 2018rako eta %2,3an 2019rako. Euskadiko BPGaren hazkundera dinamizatuko duen motor nagusia barruko eskaria izango da berriro ere. Etxeetako azken kontsumo gastua eta enpresek ekipo ondasunetan egiten duten inbertsioa izango dira aurrerapen ekonomikoaren osagai liderrak.

Agertoki makroekonomiko berrian aurreikusitako denbora epemugan, esportazioak eta inportazioak antzera igoko direla aurreikusten da. Horren ondorioz, kanpo eskariak ekarpen iraunkorra eta ia hutsa egingo dio BPGari, bai 2018an eta baita 2019an ere.

Produktzio sektoreak aztertuta, jarduerako adar guztiek balio erantsi gordinari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da, lehen sektoreak izan ezik. Lauki makroekonomiko berriak erakusten duenez, nekazaritzaren eta arrantzaren adar horrek beherako joera erakutsiko du aipatutako bi urteetan. Gainerako sektoreei dagokienez, Eraikuntzan hazkunde garrantzitsuak aurreikusten dira, dinamismo sendoaren seinale argiak erakutsiz. Industriak eta zerbitzuek, euren aldetik, hazkunde tasa garrantzitsuak markatuko dituzte euren balio erantsi gordinan, baina industria sektoreak nolabaiteko moteltzea erakutsiko du, jarduerak Europan izango duen desazelerazioaren ondorioz, Alemanian eta Frantzian, batez ere.

Lan merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspen berriek 2018an enplegua %2 eta 2019an %1,4 haziko dela erakusten dute. Horrek esan nahi du 2018an 19.000 lanpostu inguru sortuko direla, eta 13.500 inguru 2019an. Beste alde batetik, 2018an langabezia tasa %10,6koa izatea aurreikusten da, eta 2019ko batez bestekoa %10,0ra helduko da. Horrela, 2019ko bigarren seihilekoan, langabezia tasaren erregistroak %10,0tik beherakoak izango direla uste dugu. Aurreikuspen makroekonomiko horiek AIReFen abala jaso dute duela denbora gutxi.

## **2.- 2019ko Aurrekontuen Inguru ekonomiko-finantziarioa**

Diru-sarrerei dagokienez, Foru Aldundien ekarpenak 2018ko aurrekontua baino 631,7 M/€ gehiagokoak izango dira, 10.155,1 M/€ 2019an. Hala ere, kopuru hori 319 M/€-koa da, Finantzen Euskal Erakundeak urrian adostutako aurrekontuen itxierarekin alderatuta. Hori aurrekontu orokorraren %86,2 da.

Aurrekontuen egonkortasunerako helburuek erakusten dutenez, defizita hiru hamarreko murriztu behar da 2019an, %0,1eraino, 2017tik Eusko Jaurlaritzak Defizit 0 estrategia argi duen arren. Horrek aukera eman dio EAOen 116. Xedapenari heltzeko, 2018an finantzen ikuspegitik jasangarriak diren 54,4 milioi euroko inbertsioak egin ahal izateko. Dena den, defizita berraztertu arren, gastuaren arauak ez du gastu handiagoan sartzeko aukerarik ematen. Zor publikoa, bere aldetik, ez da izan behar BPG baino %13,8 altuagoa, eta Euskadiren balioak %13,2an geratu beharko dira.

Zorraren amortizazioari dagokionez, 2019ko aurrekontu proiektuan 1.098 M/€-koa izango da, 2018an baino 15 milioi gutxiago.

Inbertsioen bilakaera, kapital transferentziak eta finantza aktiboen igoera aztertuz, 991,5 milioi euro arteko igoera hautematen da, hau da, 2018an baino 68,4 milioi euro gehiago, eta horrek inbertsio publikoa %7,4 handitu dela erakusten du. Aurrekontu proiektu horrek doitu egiten du berriro Euskal Trenbide Sare berriaren (Euskal Y-a eta Hegoaldeko Saihesbidea) kudeaketa kredituen egikaritzea, eta 2019an 103,3 milioikoa izango da.

## **3.- 2019ko ardatzak: Hobekuntzarako aukera gizarte politiketan eta inbertsio publikoan**

Jaurlaritzak gizarte politikak bermatzeko eta hobetzeko eta ekonomiaren garapena eta enplegua indartzeko konpromisoak leial jarraitzen du. Horrela, proiektu honetako %77,9 gizarte politiketara dago zuzenduta.

**Osasuna** da aurrekontu handiena duen Saila, 3.800,1 M/€, hau da, 2018an baino 122,8 M/€ gehiago. Partida nagusiak Osakidetzakoa, 2.874,6 M/€-rekin eta Farmazia eta Tratamenduarekiko atxikidurarako laguntzak dira, 530,2 M/€-rekin. Horrez gain, aurrean, Osakidetzan 69,7 M/€-ko inbertsioak aurreikusten dira.

**Hezkuntzak**, bere aldetik, 2.845,4 M/€ ditu, hau da, 2018an baino %4,5 gehiago (122,6M/€ gehiago). Langile publikoen soldata baldintzek erakutsiko duten hobekuntzaz gain, hezkuntza hobetzera zuzendutako beste bultzada gehigarri bat ikusten da, 18.000 €-tik beherako errenta dutenentzat haur eskolak dohainik jarritz. Horretarako, Haurreskola partzuergoari egiten zaion ekarpena 4,5 M/€ handiagoa izango da; EHUri egindako ekarpena 10 milioi handiagoa; eta azpiegitura eta ekipamendu inbertsioetara 4,5 milioi gehiago bideratuko dira.

**Enplegu eta Gizarte Politika** Sailak, aurrekontu partidari dagokionez hirugarrena denak, 1.028,8 M/€ izango ditu. DSBE-RGIk %2,25eko



eguneratzea izango du, funtzionarioen soldatek bezala, eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarekin eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzekin batera, 497,5 M/€ jasoko dituzte. Politika aktiboen zuzkidurak 17,4 M/€ egingo du gora Lanbide barruan. Sail horrek 79,6 M/€ bideratuko ditu familiarako eta kontziliaziorako laguntzetara, 2018an baino 10 M/€ gehiago. Horrez gain, 1,6 M/€ finkatu dira errefuxiatuei arreta eskaintzeko, eta soldata etenaren kontrako borrokarako ekintzak jaso dira.

865,9M/€-rekin aurrekontuan laugarren lekua hartzen duen **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura** Sailaren datuei dagokienez, 34,1 M/€-ko igoera izan dute 2018arekin alderatuta. Euskal Y-aren eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen kudeaketa kredituek 103,4 M/€ izango dituzte 2019an. Sail horrek 13 M/€ gehiago bideratu ditu Zientzia eta Teknologia Planaren (ZTP-PCTI) barruan dauden programetara, 10,3 M/€ gehiago industria programetara eta 10,5 M/€ gehiago nekazaritza eta arrantza programetara. Horrez gain, 25 M/€-ko ekarpena egingo da FEI-IVFra, Industriako Partaidetzen Funtserako.

**Segurtasunak** 658,2 M/€-ko aurrekontua izango du, 17,4 milio igoerarekin. Igoera horren zati nagusia Arkauteko Akademiara, Ertzaintzan egin beharreko inbertsioetara eta Genero Indarkeria eta beste zaugarritasun egoera batzuk babesteko zerbitzura bideratuko da.

**Kultura eta Hizkuntza Politika** saila, bere aldetik 260,1 M/€-ra helduko da, EITBrako zuzkidura gehigarria 4,8 M/€-koa izango da eta Guggenheim museorako ekarpenaren igoera 1,9M/€-koa.

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza** Sailak 223,5 M/€ inguru ditu, eta gehien igoko den Saila da, 2018an baino %8,4 gehiago. Horren zergatia gazteei eta behar gehien duten kolektiboek zuzendutako Etxebizitza Plan Zuzendaria da, igoera osoaren 17,4 M/€-etatik ia 15 M/€ Plan horretara bideratuko baitira. Halaber, ingurumen arloko kudeaketarako eta lurraldearen antolamendurako zuzkidurak indartu egingo dira.

**Lan eta Justizia** sailak 217,4 M/€ izango ditu, %3,2ko hazkundearekin, Justizian egin beharreko inbertsioetara eta soldata etenaren kontrako borrokarako ekintzetara zuzenduta, batez ere.

**Lehendakaritza** sailak 122,7 M/€ izango ditu 2019an. Kopuru horren barruan eutsi egiten zaio Berrikuntza Funtzari 40,6 M/€-rekin; Lankidetzan eta Garapenerako Laguntzan 46,2 M/€ finkatzen dira eta 2,4 M/€ errefuxiatuei arreta eskaintzeko; Emakunderen aurrekontua %8,6 igoko da.

Aurrekontu proiektu honek %2,25eko soldata igoera aurreikusten du Eusko Jaurlaritzako eta bere erakundeetako 90.000 langile baino gehiagorentzat, Itzarrira egindako ekarpena jasotzeaz gain. Horrela, **Gobernantza Publiko eta Autogobernu** sailak 2,5 M/€-ko igoera erakutsiko du, 121,1 M/€-ko aurrekontura helduz 2019an.

Amaitzeko, **Ogasun eta Ekonomia** sailak 52,6 M/€-ko aurrekontua izango du, eta **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo** sailaren aurrekontua 41,2 M/€-raino igoko da.

#### **4.- Aurrekontu estrategikoak**

Aurrekontu proiektu honen diseinua, plan estrategiko nagusiekin eta sailek dituztenekin lotutako epe ertaineko aurrekontu epemugan oinarritu da. Horiek guztiak *Politika Publikoen Estrategian eta Garapenean* eta *Ekonomia eta Aurrekontu Esparruan* jasotzen dira. Planteamendua, Eusko Jaurlaritzak bere lanean duen aurrekontu egite estrategikoan justifikatzen da, Gobernu ekintza 2020ra arte hedatzeko aukera emango duen urte anitzeko epemugan.

### 2019KO AURREKONTU PROIEKTUAREN FUNTSAK

#### **DATU OROKORRAK:**

1. **11.784,1M/€.** Egonkortasun esanguratsua duen hazkundearen aldeko testuinguru ekonomikoa, moteltze leunaren barruan egon arren.
2. **HAZKUNDE ABSOLUTUA:** 297,7M/€ (%2,6).
3. **HAZKUNDE ERREALA:** 371,3M/€ (%3,6). *–zorraren amortizazioa eta Euskal Y-ra eta Hegoaldeko Saihesbidera zuzendutako zenbatekoa kenduta–.*
4. **%77,9 GIZARTE ARLOKO GASTUA:** Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte Politikak (DSBE-RGIaren %2,25eko eguneratzea).
5. **INBERTSIO PUBLIKOAREN ALDEKO APUSTUA:** %7,4ko igoera. 68,4 M/€-ko hazkundera inbertsio publikoan.
6. **BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA:** %6,5. (PCTI 28,2M/€ gehiago). Guztira PCTI 461,5M/€.
7. **SOLDATAREN HOBEEKUNTZA ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO 90.000 LANGILERI:** Soldataren %2,25eko igoera eta Itzarrira egindako ekarpenen finkapena.
8. **ENPLEGUA:** 2018an enpleguaren sorrera %2koa izango da. Jardunaldi osoko 19.000 lanpostu sortzea.
9. **BPG-REN HAZKUNDEA:** %2,8 (2018) eta %2,3 (2019).
10. **“DEFIZIT 0” ESTRATEGIA:** DEFIZITA: Euskadirentzat muga %0,1ekoa da 2019an, 2017tik Eusko Jaurlaritzak Defizit 0 estrategia argi duen arren. ZOR PUBLIKOA: ez da izan behar BPG baino %13,8 altuagoa, eta Euskadiren balioak %13,2an geratu beharko dira.
11. **EUSKAL Y-A ETA HEGOALDEKO SAIHESBIDEA:** Kudeaketa kredituen doikuntza, 2018ko 161,4 M/€-tik 2019ko 103,4 M/€-ra. *–Aurreikusitako programaziora doitutako zenbatekoa–.*
12. **FORU ALDUNDIEN EKARPENAK:** 10.155,1 M/€ –2018ko aurrekontuak baino 631,7 M/€ gehiago, baina Finantzen Euskal Erakundeak urrian adostutako aurrekontuen itxiera, 9.836M, baino 319M/€ gehiago–. Diru-sarreraren %86,2.

## **SAILAK:**

### **Osasuna: 3.800,1M/€.**

- Osakidetza: 2.874,6M/€.
- Farmazia eta Tratamenduarekiko atxikidurarako laguntzak: 530,2M/€.
- Osakidetzako inbertsioak: 69,7M/€.

### **Hezkuntza: 2.845,4M/€.**

- Langile arloko akordioen finkapena, 34 M/€. 77,7 M/€-ko hazkunde osoa.
- Inbertsioak azpiegituretan: 69,4M/€.
- Inbertsioaren hazkundea: 4,5
- Haurreskolak partzuergoari egindako ekarpena 4,5M/€ gehiago
- Saileko programen igoera. PCTI (9,7M)
- EHU. Ohiko ekarpena, inbertsioak eta kontratu-programa: 314

### **Enplegua eta Gizarte Politikak: 1.028,8 M/€.**

- DSBE-RGI: %2,25eko eguneratzea.
- DSBE-RGI+PCV: 470 M/€.
- AES: 27,5 M/€.
- LANBIDE (politika aktiboak): 367,6 M/€.
- Familiarako eta kontziliaziorako laguntzak 10 M/€ gehiago, 79,6 M/€-ra heldu arte.

### **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak: 865,9 M/€.**

- Azpiegiturak, Garraioak eta Portuak: 266,5 M/€ (Euskal "Y" eta Hegoaldeko Saihesbidea gabe), (guztia kontuan izanda 369,8 M/€).
- Industria: 346,6 M/€.
- Nekazaritza eta Arrantza: 149,5 M/€.
- IVF ekarpena. 25 M/€. Industriako partaidetza funtsa.
- Sailaren murrizketa orokorra, trenbide sarearen (Euskal Y-a) eraginaren ondorioa da. Hala ere, eta hegoaldeko saihesbidearen eragina ere kontuan izango ez bagenu, aurrekontua 34,1 M/€ handiagoa izango litzateke, % 4,7.

### **Segurtasuna: 658,2 M/€.**

- Langileak: 502,1 M/€.
- Polizia akademia: 16,6 M/€.
- Inbertsioaren hazkundea: 6,1 M/€ (%45,6).

### **Ingurumena, Lurralde Politika eta Etxebizitza: 223,4 M/€.**

- Ingurumena: 72,2 M/€.
- Lurralde Antolaketa: 9,4 M/€.
- Etxebizitza: 141,8 M/€. 14,8 M/€-ko hazkundea gazteei eta behar gehien duten kolektiboari zuzendutako Etxebizitza Plan Zuzendarirako (%11,6).

### **Kultura eta Hizkuntza Politika: 260,1 M/€.**

- EITBrako ekarpenaren igoera, 4,8 M/€.
- Guggenheim museorako ekarpenaren igoera, 1,9M/€.

**Lana eta Justizia: 217,4M/€.**

**Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 121,1 M/€.**

- %2,25eko soldata igoera.
- Ekarpinak Itzarrira.

**Lehendakaritza: 122,7 M/€.**

- Lankidetzak: 46,2 M/€.
- Berriztapen funtsa: 40,6 M/€.
- Kanpo ekintzaren igoera: 0,8 M/€ (%10).
- Emakunderen aurrekontua: %8,6 altuagoa.

**Ogasuna eta Ekonomia: 52,6 M/€.**

**Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 41,2 M/€.**

## Hezkuntza

### **175.000 EURO DOKTORETZA-AURREKO IKERTZAILEEN EGONALDIETARAKO DIRU-LAGUNTZETAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko diru-laguntzak deitzen dituen agindua.

175.000 euroko diru-kopurua duen deialdi hau gorago aipaturiko Doktoretza-aurreko Programaren onuradun diren ikertzaileei zuzendua da. Ikertzaile hauek lan-kontratu bidezko harremana dute ikerketa zentroekin (unibertsitate edo ikerketa erakundeak, I+G+b-n ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak). Ikerketa zentro horiek Doktoretza-aurreko programarako aplikazio-zentrotzat hartzen dira. Hala ere, sarri askotan, doktoretza-aurreko ikertzaileek aplikazio-zentroa ez den beste zentro batean egin ohi dituzte unean-uneko egonaldiak, euren ikerketa-lanaren garapenak hala eskatuta.

Horrela bada, Hezkuntza Sailak diru-laguntza deialdi hau deitzen du, lekualdatzeak edo aldi baterako egoitza-aldaketak egin behar izaten dituzten doktoretza-aurreko ikertzaile horiei osagarri ekonomikoak eskaintzeko helburuz. Egonaldiak unibertsitateetan, ikerketa edo garapen teknologikoko zentroetan eta I + G +b-ko jarduera duten enpresetan egin ahal izango dira, atzerriko zein estatu mailakoetan, betiere aplikazio-zentroarena ez den herri batean kokatuta badaude eta diru-laguntza ematea justifikatuko duen aldi baterako egoitza-aldaketa badakar.

2018an, doktoretza-aurreko 59 ikertzailek jaso dute diru-laguntza iazko deialdiaren bidez, eta horrela, aldi bateko egonaldiak egin ahal izan dituzte (edo egiten ari dira) euren aplikazio zentroa ez den beste zentzoren batean.

Egonaldien helburua izango da ikertzaileek beren ikerketa zientifiko eta teknikoan izan beharreko prestakuntza hobetzea eta, horretarako, jarduera hauek egitea: ikerketa-jarduerak, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, edo gauzatzen ari den tesi-proiektuaren testuinguruan, prestakuntza zientifikoaren onerako izango den eta tesia garatzeko prozesua sustatuko duen beste edozein ikerketa-jarduera.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK AGINDU BAT ONETSI DU, OSASUN ARLOKO PROFESIONALEI PRESTAKUNTZA EMATEKO ETA ZABALKUNDE ZIENTIFIKORAKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, agindu bat onetsi du; horren bidez, 2018an Euskal Autonomia Erkidegoan eginiko osasun-arloko profesionalentzako prestakuntza-jarduerak eta zabalkunde zientifikorako jarduerak finantzatzeko laguntzen deialdia arautzen da. Diru-laguntza horiek osasunaren arloan lan egiten duten lanbide-erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzentzen zaizkie, bai eta irabazi-asmorik gabeko zientzia- eta osasun-erakundeei ere. Aginduan jaso den bezala, honako hauek finantzatuko dira:

- Zientzia-arloko biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea.
- Ikastaro eta tailerrak antolatzea.
- EAEn helbide ofiziala duten irabazi-asmorik gabeko zientzia- eta osasun-erakundeen eraketa edo funtzionamendua, osasun-arloko profesionalak prestatzen dituztenena edo osasun-ikerketak sustatzen dutenena.

Osasun-arloko profesionalentzako prestakuntza-jarduera, nagusiki, zainketa aringarrietan, pazientearen segurtasunean, haurren obesitatean eta, deialdi honetako nobedade gisa, familia- eta erkidego-medikuntzan oinarritzen da.

**Laguntzak, guztira, 79.409 eurokoak izango dira;** horietatik, 31.764 € erakundeen eraketa edo funtzionamendura bideratuko dira, 27.793 euro ikastaroak eta tailerrak antolatzera eta 19.852 € zientzia-bilerak antolatzera.

Eskabideak [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) webgunearen bidez aurkeztuko dira, hilabeteko epean, agindu hau EHAAr argitaratu eta biharamunetik aurrera. Laguntza-programa hau Osasun Sailaren 2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan sartzen da; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak kudeatuko du, Euskadin osasun-asistentzia hobetzeko, osasun-eremuko gaikuntza profesionalaren eta ikerketaren sustapenaren bidez.

## Segurtasuna

### **TRAFIKOKO BIKTIMEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DA**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Trafiko-istripuen biktimen euskal erregistroa arautzen duen dekretua. Erregistroa Trafiko Zuzendaritzari atxikita dago, eta hiri barruko zein hiriarteko bideetan gertatzen diren eta biktimak eragiten dituzten trafiko-istripuei buruzko datuak jasoko ditu, istripuen kausak, inguruabarrak eta haien ondorioak zein izan diren zehazteko.

Informazioa erregistroa baliabide elektronikoak erabiliz igortzeko formulario ofizialak arautuko dituen Agindua indarrean jarri eta hiru hilabetera jarriko da abian bete-betean erregistroa.

Orain arte “Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa” izenekoa egiten zen, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen txostenetako eta atestatuetak datuetatik abiatuta. Eta horietako azken hamar urteotako datuen azterketak agerian jarri du ezbehar-kopuruaren bilakaera positiboa izan dela, eta 2000. urtean, esate baterako, 218 hildako izan ziren eta 2017an 39.

Hala ere, zifra horiek agerian uzten dute bidean izandako ezbehar-kopurua gizaratearen gaitzetako bat dela; Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du trafiko-istripuak heriotza-kausa nagusietako bat direla, eta gaur egungo joerek adierazten dute premiazko neurriak hartu ezean, 2030. urterako trafiko-istripuak bosgarren heriotza-kausa izango direla.

Erregistroa sortuta gainditu egin nahi dira egungo eragiketa estatistikoak, eta, aldi berean, estatistika zehatzagoak lortu nahi dira, lortutako informazioa bide-segurtasuneko politikak ikertzeko eta ebaluatzeko erabili ahal izateko.

Erregistro berriko informazioarekin trafiko-istripuen biktimei buruzko estatistika landuko da, bide-segurtasunari buruzko azterlanak egingo dira eta trafiko-istripu larrien batez besteko kostu soziala kalkulatu da, informazio fidagarri, sistematiko eta eguneratu batetik abiatuta.

Informazio hori izanda, hildakoak eragin dituzten istripuek eta istripu larriek ze kausa, inguruabar eta ondorio izan dituzten jakin ahal izango da, era horretara bide-segurtasunaren arloko politikak ebaluatu ahal izateko eta European zein Euskal Autonomia Erkidegoan 2020. urterako jarritako helburua, errepideetan hildakoen kopurua erdira murriztea, alegia, lortzeko prebentziozko neurriak edo zuzentzaileak hartu ahal izateko.

Horrela, indarrean dagoen Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrean (2014-2019) eta Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta

Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2015-2020) ezarritako konpromisoetako bat beteko da. Eta, gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/96/EE Zuzentarauak, bide-azpiegituren segurtasunaren kudeaketari buruzkoak, jasotako aurreikuspenak beteko dira, hildakoak eragin dituen istripu bakoitzeko txosten bat idatzi behar dela ezartzen baitu.

Istripuen, haietan inplikaturako pertsonen, bideen, ibilgailuen eta bestelako inguruabarren eta eragin faktoreen inguruko informazioa trafikoa zaintzeaz arduratzen diren Ertzaintzako eta udaltzaingoetako agenteek jasotakoa izango da.

Istripua izan eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean hil diren pertsonen buruzko informazio osagarria ere izango da, osasun-zentroetakoa zein aldizkari estatistikoetakoa, eta istripua izan duten pertsonen lesioen larritasun maila eta lesio moten buruzko informazioa ere eskatuko zaie. Intereseko informazioa eman dezaketen errepideen kudeatzaileetatik datorren informazioa edo erregistroaren helbururako adierazgarria den guztia ere izango da.

Informazio hori baliabide elektronikoak erabiliz bidaliko da, Segurtasun Sailak onartutako istripu-formulario ofizialen bidez eta administrazioen arteko elkarreragingarritasun-protokoloak kontuan hartuta. Formulario horien edukia eta informazioa igortzeko epeak bat etorriko dira Trafiko Istripuen Biktimen Erregistro Nazionalera informazioa bildaltzeari buruz Estatuko araudiak ezarritakoarekin.

Informazioa Trafiko Istripuen Biktimen Erregistro Nazionalera igorriko da Estatuko informazioa zehazteko. Era berean, errepideen arduradunei ere helaraziko zaie euren titulartasunekoak diren bideetan gertatzen diren eta biktimak eragiten dituzten trafiko-istripuei buruzko informazioa, baina datu pertsonalik eman gabe, istripu ugariko bide-zatiak identifika ditzaten.

Trafiko Zuzendaritza arduratuko da erregistroko datuen konfidentziasunaz, eta segurtasunaz, bai eta datuak babesteko araudia betetzeaz ere. Erregistroko idazpenetan inplikaturak buruz agertzen diren identifikazio-datuak edo inplikaturak osasunarekin lotutakoak erregistroaren helburua betetzeko behar-beharrezkoak direnak baino ez dira izango.



## Lana eta Justizia

### **250.000 EURO GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESETAN LANGILEEK PARTE HARTZEKO LAGUNTZETAN**

Lana eta Justizia Sailak, bere Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren bidez, 250.000 euro bideratzen ditu Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresetan langileen parte-hartze erreal eta eraginkorra sustatzera.

Laguntzak diru-laguntzak dira, eta gastuak honako hauek finantzatzera bideratuko dira:

- a).- Langileek Gizarte Ekonomiako Enpresetako kudeaketan eta organoetan hobeto parte hartzeko bide emango duten metodo eta tresnak garatu eta ezartzea.
- b).- Langileen parte-hartzea sustatzeko azterlanak egitea eta gai horren inguruko jardunbide egokiak zabaltzea.

Eskabideak nola izapidetu jakiteko zehaztapenak hemen daude eskuragarri:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion\\_participacion\\_2018/y22-izapide/es](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion_participacion_2018/y22-izapide/es)

Eskabidearen ondoko izapideak <https://euskadi.eus> atarian egingo dira, «Egoitza elektronikoa / Nire kudeaketak» atalean.

## Presidencia

### EL LEHENDAKARI REALIZARÁ UNA VISITA INSTITUCIONAL A ARGENTINA Y CHILE Y PARTICIPARÁ EN LA “SEMANA NACIONAL VASCA”

- El viaje oficial tendrá lugar del 31 de octubre al 6 de noviembre
- La “Semana Nacional Vasca” se celebrará en la localidad argentina de Mar de Plata

El Lehendakari Iñigo Urkullu encabezará la delegación del Gobierno Vasco que visitará Argentina y Chile entre el 31 de octubre y el 6 de noviembre. Durante el viaje oficial el Lehendakari tendrá ocasión de seguir proyectando **la Estrategia de Internacionalización Euskadi Basque Country** en el exterior y estrechar lazos institucionales, culturales y económicos con ambos países. El Lehendakari también participará en la “**Semana Nacional Vasca**” que este año se celebrará en la localidad argentina de Mar de Plata. Esta será la **séptima salida** que el Lehendakari realizará al extranjero en la XI Legislatura.

En el viaje oficial el Lehendakari estará acompañado por la Secretaria General de Acción Exterior, **Marian Elorza**; la Directora de Relaciones Exteriores **Leyre Madariaga** y el Director para la Comunidad Vasca en el Exterior **Gorka Álvarez**. También prestarán su apoyo los delegados del Ejecutivo Vasco en Argentina, **Sara Pagola**; y de Chile, **Rafa Kutz**.

La delegación encabezada por el Lehendakari tendrá ocasión de mantener varios encuentros institucionales y recepciones a colectividades vascas de ambos países.

En Buenos Aires, en el ámbito de la cultura de la memoria, el Lehendakari visitará el Museo Sitio de Memoria ESMA (Escuela Mecánica de la Armada (ESMA), un lugar de memoria y Derechos Humanos cuyo fin es recordar a las víctimas de la dictadura (1976-1983) y condenar los crímenes de lesa humanidad.

